

Mondragon Unibertsitateko ikasle atzerritarren bigarren topaketa

2008/03/04

Otsailaren 25ean ospatu zen Goi Eskola Politeknikoan eta Enpresa Zientzien Fakultatean ikasten ari diren 24 ikasle atzerritarren 2. topaketa.

Ikasleek MCCko diaporama ikusi zuten eta Gentzane Aldekoa eta Aitor Lizartzak bi fakultateetako aurkezpena egin zieten. Bukatzeko, ikasleek bakoitzak bere aurkezpena egin zuten. Ikasle hauek Erasmus programaren bidez edo unibertsitateen arteko hitzarmenen bidez etorri dira herrialde hauetatik: Txekiar Errepublika, Frantzia, Polonia, Mexiko, Alemania, Italia, Eslovakia eta Hego Afrika.



Bisitaren taldea